

Bosturtekoetarako LABen proposamena (2025eko maiatza)

Oinarriak

- Soldatak duintzea, nahiz eta oinarrizko soldata handitzea den lortu behar dena.
- Irakasle partzialei eskola eta tutoretza orduen araberako proportzio justua.
- Soldata arrakala murriztu.
- Automatizaziorantz pausoak eman.

Oinarri legalak (USLO):

- Funtzionarioak: 76.4 artikulua: *“4. Las universidades podrán establecer retribuciones adicionales ligadas a méritos individuales, mediante procedimientos negociados con la parte social y transparentes.”*
- Laboralak: 87.4 artikulua *“4. Las universidades podrán establecer retribuciones adicionales ligadas a méritos individuales, mediante procedimientos negociados con la parte social y transparentes.”*

1.- Figura guztietarako diru-kopuru bera, zehazki irakasle osoa/katedradunarena. EHUk osatuko ditu 41/2008 Dekretuan eta 1086/1989 errege dekretuan jasotako bosturtekoen kopuruak, kategoria guztiek diru-kopuru bera kobratzeko. Bosturtekoa = bost urte klaseak ematen. Urte gehiago, bosturteko gehiago eta diru gehiago jaso, baina bosturtekoen kopurua berdin guztientzat. Kategoria altuagoa izateak ez du esan nahi hobeto irakasten denik. Promozioa ikerketari lotuta dago, neurri handi batean.

2.- Irakaskuntza-merezimenduengatik osagarria 5 urtean behin eskatu daitezke dedikazioa edozein izanik. Kreditu kopuru minimoa ezar daitezke 5 urteetan 45 kreditu. Ikertzaile doktore iraunkor zein ikerketa-irakasleei ere irizpide hori aplikatuko zaie. Gutxieneko kreditu kopurua kalkulatzeko, baja, baimena eta murrizketa garaiei dagozkien kredituak deskontatuko lirateke. Soldata arrakala murrizteko mendeko pertsonak eta/edo adingabeak zaintzeko eszedentziak kontuan hartuko dira bost urteren kalkuluan aipatutako deskontua aplikatuz.

3.- Bosturtekoa lortuta, arduraldi partzialean egonda, arduraldiaren arabera kobratuko litzateke, oinarri moduan asteko 8 orduak izanda. Hau da, 4 orduko kontratua izatekotan, osagarriaren erdia, 3 orduko kontratuetan 3/8... Arduraldiz aldatzean osagarria aldatuko da automatikoki kopuru berrira, norabide batean zein bestean ere.

4.- Malgutasuna eskaera egiteko epeari dagokionez. Eskaera egiteko garaian bajaran/baimena/eszedentzian egon bada langilea aukera ematea lanera bueltatzen denean eskaera egiteko eta kobratu atzeraeraginez langileak eskubidea izan zuenetik.

5.- Goian adierazitako irizpideak aplikatuz lortutako bosturtekoak berrikusiko dira kontuan hartuta partzialean egondako denbora eta ikertzaile doktore iraunkorrenzako irakasle-ikertzaileak eskatzen badu.

6- Pausoak eman kasu estandarretan bosturtekoa automatikoki aitortzeko.